



Esp.-kodea: 2015SAPL0006

UDAL PLENOA
Bilkura ezohikoa

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2015/05/07	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 17:00 - 17:40	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)
Maidor Morras Azpiazu (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Ibon Arrupe Aldecoceta (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Gregorio Achutegui Basagoiti (PSE-EE)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)

Idazkaria: Iñigo Garitano Larrañaga

Beste funtzionario batzuk: Kandi Fernandez (Udal Inguru Eskolako zuzendaria).

BILDU EZ DIREN UDALKIDEAK:

Josu Pereda Leceta (BILDU)
Omer Arregi Biain (BILDU)
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)



Esp.-kodea: 2015SAPL0006

BERTARATZE ETA IRTEERAK: Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

1.- ESKOLAKO AGENDA 21. MUGIKORTASUNA AZTERTZEN: KONKLUSIOAK, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Arratsalde on denoi, eta ongi etorri Pleno berezi honetara. Aurreko bi ikasturteetan gogoratzen dut proposamen mordo bat egin zenizkigutela gure ingurunea zaintzeko, natura errespetatzeko eta ohitura sanoak hartzeko.

Bioaniztasunaren inguruan egin zenizkiguten ekarpen haietako asko baliagarriak izan dira guretzat eta, horrexegatik, irrikaz nago gaurkoan Arrasaten mugikortasuna hobetzeko daukazuen ideiak zeintzuk diren jakiteko.

Arrasaten denok hobeto bizi gaitezen, eredu jasangarriagoa edo iraunkorragoa bultzatzen ari gara. Hori da aspaldian gure erronka nagusia eta gaur dakarzuena gaia, bene-benetan, oso garrantzitsua da. Askotan esaten dugu denok parte hartu behar dugula, danok jarri behar dugula ganora Arrasate hobetzen. Eta horrexegatik izugarri eskertzen dut zuek urtero egiten duzuen ahalegina herrirako hain garrantzitsuak diren gaiak landuz.

Agian, ez duzue pentsatuko hain inportanteak zaretenik.

Baina sinistu ezazue: zuek akuillu lana egiten duzuenak helduok gai askotan busti gaitezen.

Eskerrik asko, beraz, berriz ere hona zuen ideiak eta galderak ekartzeagatik. Gogotsu nago zuen proposamen fresko-freskoak entzuteko eta ez naiz gehiago luzatuko. Ondo iruditzen bazaizue, has gaitezen pleno berezi honekin! Zuen da hitza!

Gazteluondo: Alaitz Bengoa

Arratsalde on!

Gaur hemen gaudenok Arrasateko Herri Eskolako, Institutuko eta Arizmendi Ikastolako (Gazteluondo Gunea, Arimazubi Gunea, Sta Teresa Gunea eta Gaztelupe Gunea) ikasleak gara. Ikastetxe horietako 6-18 urte bitarteko ikasle guztiok jardun dugu aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 21 lantzen.

Eskolako Agenda 21aren bitartez saiatzen ari gara Arrasatek aurrera egin dezan jasangarritasunaren bidean, eta gure esku dagoena egiten.



Esp.-kodea: 2015SAPL0006

Arrasate Herri Eskola: Iker Zubillaga

Duela 12 ikasturte hasi genuen proiektua eta denbora luze horretan gai hauek landu ditugu: zaborra, ura, energia, kontsumoa, publizitatea, ekitatea, zarata eta uhin elektromagnetikoak, elikadura jasangarria, bioaniztasuna bi urtetan eta aurren mugikortasuna ere izan dugu gaia.

Kurtso honetan asko izan dira egindako lanak eta aktibitateak, bai gure zentroetan, bai Ingurumen Eskolan, bai herriko hainbat txokotan, baina, zuek ideia bat egiteko, adibide gisa hemen zerrendatzen ditugu jarduerak:

Arimazubi: Jana Moregueses

- Irailean Udalak antolatutako Mugikortasun astean parte hartu genuen antolatutako hainbat tailerretan, eta urteko proiekturako maskota aukeratu genuen.
- Gaiaren aurkezpena egin genuen kurtso hasieran, bideo eta aurkezpen batzuk ikusi genituen mugikortasunaren gaiari buruz.
- Gure zentroetako diagnostikoa egiteko inkesta batzuk bete ditugu guztion artean eta ondorio interesgarriak atera ditugu. Zentroetan txoko berdeak sortu ditugu.
- Gure familiekin ere inkestak bete ditugu eta herrian nola mugitzen garen jakiteko oso interesgarriak izan dira.
- Gure eskola inguruak behatu ditugu: errepideen eta espaloien zabalerak neurtu ditugu, ibilgailuak zenbatu eta daramaten abiadura neurtu dugu, autoetan zenbat pertsona doazen zenbatu dugu,....

Institutua: Andoni Uriarte

- Heziketa fisikoan jolas baten bidez trafiko seinaleak landu ditugu, eta bizikleten mantentze lanak egiten ikasi dugu.
- Eskoletan bizikleta eta patineteentzako aparkalekuak ipini ditugu eta patineteen erabilera arautu dugu. Bizikletarekin kaskoaren garrantzia azpimarratu dugu.
- Arrasaten dagoen garraio publikoaren garrantziaz jabetu gara eta dauden ordutegiak aztertu ditugu.

Gazteluondo: Irati Santiago

- Denboraren joanean Arrasateko mugikortasuna nola aldatu den ikusi dugu eta gauza asko aldatu direla konturatu gara.
- Garraio azpiegiturek Naturan duten eragina aztertu dugu (Abiadura Handiko Trena, mendiko pistak,...).



Esp.-kodea: 2015SAPL0006

- Arrasateko biztanleei galdetegiak egin dizkiegu, emaitzak aztertu eta arazoak konpontzeko proposamenak atera ditugu.

Gazteluondo: Aner Uribesalgo

- Trafikoaren aspektuak ikusi ditugunean airearen kalitatea ere landu dugu.
- Eskolako kultura astean ere Mugikortasun gaia landu dugu.
- Irteerak egin ditugu bai Oñatira bizikletaz bai Garagartzara oinez.

Arimazubi: Jone Pascual

- Planetaren klima aldatzen ari dela ikusi dugu, eta baita horrek dituen ondorioak ere. Gainera, gure mugitzeko eragatik dela ikusi dugu.
- Eskolara oinez edo bizikletan joateko aukerak aztertu ditugu, ibilbide bat baino gehiago eginez auzoetatik ikastetxeetara.
- Aztertu dugu eskolako sarrera-irteera orduetan nolakoa den mugikortasuna.
- Ipuinen bidez landu dugu nolako gauza onak dituzten autorik gabeko kaleek. Herritik buelta batzuk eman ditugu eta hori guztia egiaztatu dugu, herriko kale batzuk lasaiak eta atseginak direla, automobilik ez dagoelako.

Gaztelupe: Maite Lizundia

- Mugikortasun jasangarriaren aldeko trafiko seinaleen eskulanak egin ditugu. Lan polita eta dibertigarria izateaz gain, gauza asko ikasi dugu.
- Gure herria nolakoa izatea nahi dugun irudikatu dugu muralen bitartez.
- Mugikortasun jasangarriaren klabeak zeintzuk diren azpimarratu dugu gure ekintza guztiekin, eta gure herria erosoagoa eta jasangarriagoa izateko konponbideak topatzen saiatu gara.

Gaztelupe: Ane Sta Kristina

'Mugikortasun jasangarria' gaia aztertu dugunean, konturatu gara arazo asko agertzen direla (gehienak gure herriko bizimoduarekin lotuta) eta denok egin genezakeela zerbait hori guztia konpontzeko.

Ikasle guztiok parte hartu dugu orain aurkeztuko dizkizuegun ondorioak, proposamenak eta konpromisoak egiten. Lehendabizi ikasgela bakoitzean adostu ditugu, gero ikastetxe bakoitzeko ikasgeletako ordezkarien arteko batzarrean, eta amaitzeko, hemen aurkeztuko dizkizuegunak ikastetxe guztietako ordezkarien arteko batzarrean adostu ditugu.



Esp.-kodea: 2015SAPL0006

Arrasate Herri Eskola: Manex Bakero

Hemen aurrean gauden ikasleak lehen aipatu ditudan ikastetxe guztietako ikasleen ordezkariak gara. Orain entzungo dituzuen proposamenekin eta konpromisoekin Arrasateko bizi kalitatea hobetu nahi dugu, hau da, Arrasate hobea lortzen lagundu nahi dugu.

ARRASATEKO UDALBATZARRERAKO KONKLUSIOAK, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK

Institutua: Iman Addou

Arrasateko mugikortasuna aztertzeke eta ea noraino den jasagarria jakiteko, gure etxe askotara inkesta batzuk eraman ditugu eta benetan ondorio interesgarriak atera ditugu, besteak beste:

- Herrian 0,4 auto daudela pertsonako eta 0,8 bizikleta pertsonako.
- Batez beste auto bakoitzak egiten duen distantzia eguneko 25 km ingurukoa da.
- Herriko eskolen artean alde handiak daude eskolara joateko moduak aztertzerakoan. Adibidez, 3. zikloko ikasleen artean Herri Eskolan %40 doa oinez, Arimazubin %75, Gazteluondon %80 eta Sta Teresan %90.
- Gurasoak lanera joateko garraio nagusia autoa da; gero, oinez eta oso gutxi bizikletan edo autobusez.

Arimazubi: Nahikari Osorio

- Guraso gehienek ez daukate ohiturarik garraio publikoa erabiltzeko. Diotenez erosoagoa zaie autoz mugitzea, tartean ibilbideak eta ordutegiak ez zaizkielako egokitzen beraien beharretara.
- Konprobatu dugu auto gehienak askotan pertsona bakarrarekin joaten direla eta kotxea ez dela konpartitzen. Gure ustez, hobe da autobusean mugitzea eta ez bakoitza bere autoan.

Sta Teresa: Unai Leon

Gure ohitura txarra horien aurrean hauek dira udal honi egiten dizkiogun lehendabiziko proposamenak:

-“Ikastetxeetan ikasleen bizikletak aparkatzeko toki egokiak jartzea”.

- “Bidegorri sarea egitea, herriko ardatz nagusietan, gutxienez: Uribe auzoan, San Andresen, Otalora Lizentziaduna kalean, Zarugalden, Garibai, Gipuzkoa etorbidean eta Musakolan”.
- “Oinezkoen espaloiak zabalagoak egitea eta errepidetik babesteko eskudela jarri toki zehatz batzuetan (Herri Eskolarako joateko bidean,...”.



Esp.-kodea: 2015SAPL0006

Sta Teresa: Yara Moto

Guk gure aldetik konpromiso batzuk hartu ditugu: ibilbide motzak egiteko gurasoei esango diegu prest gaudela oinez edo bizikletaz egiteko. Eta eskolara oinez edo bizikletaz joaten hasiko gara. Lagun taldeak egingo ditugu eskolara oinez joateko. Gurasoekin hitz egingo dugu lanera bizikletaz joateko duten aukerez eta horretara animatuko ditugu. Oinez mugitzearen onurak azalduko dizkiegu gure ingurukoei, eta animatuko ditugu oinez mugitzera.

Arimazubi: Manex Juaristi

Gure mugikortasun ohiturek kutsadura mota askotako arazoak sortzen dituzte. Batetik airearen kutsadura dugu; guk arnasten dugun airea kutsatu egiten da eta CO₂ gasak atmosferara igortzen jarraitzen badugu, klima aldaketan eragina izango du: poloak urtuko dira, itsas maila igoko da, eguraldia aldatuko da, lehorteak, uholdeak, eta abar. Horrek ondorio kaltegarriak ekarriko ditu herritar guztiontzat. Bestetik, zarata kutsadura dugu. Kotxe asko ibiltzen diren kaleetan izugarritzko zarata dago, eta frogatuta dago oso kaltegarria dela gure osasunerako. Munduko herrialde zaratatsuenetariko bat gara.

Arazo horiei guztiei aurre egiteko, hona hemen gure proposamenak:

Sta Teresa: Danel Zuazubiskar

- “Autoak oinezkoen espazioa ez inbaditzeko neurriak hartzea. Adibidez, Kalealdean, Erguin kalean, Udala bidean”.
- “Gehiegizko abiadura hobeto kontrolatu herriko sarreretan, auto gehienek gainditu egiten dute eta”.

Institutua: Jon Herrarte

Kurtso honetan egindako ekintzekin eta, batez ere, herritarrek inkestetan erantzun dutenarekin, esan dezakegu gure herrian bizikleta ez erabiltzeko arrazoi nagusiak hauek direla: bidegorri falta, segurtasunik ez eta ohiturarik ez. Gaur bizikletaren erabilera handiena aisialdirako da, argi eta garbi. Segurtasun eza sumatu dugu, batez ere, kotxe asko dauden toki eta kaleetan. Alde Zaharreko mugikortasuna asko hobetu da: oinezkoen ibilgune bihurtu denetik eta trafikoa mugatu denetik segurtasun eta lasaitasun handiagoarekin mugitu gaitzke.

Arrasate Herri Eskola: Saioa Ortiz

Gure proposamenak puntu honetan oso lotuta daude segurtasun neurriekin. Hauek dira:

- “Eskolako sarrera-irteera orduetan neurriak hartzea arriskurik ez egoteko. Gehienbat, herri Eskolan”.



Esp.-kodea: 2015SAPL0006

- “ Zebrabideen segurtasuna handitzea: Arimazubin, Erguinen Herri Eskola azpian, San Andresen, Nafarroa etorbidean”.
 - “Ikastetxe inguruetan espazioa oinezkoentzat bihurtzea. Adibidez, Musakolako Haur Eskola kanpoan eta Bedoñaben”.
 - “Herriko zebrabideak seguruagoak izan behar dira”.
- Gu noski prest gaude segurtasun neurriak errespetatzeko eta Udaltzaingoen arauak jarraitzeko.

Gazteluondo: Garazi Aranguren

Garraiorako egin dizkiguten azpiegiturek (errepideak, autopistak, trenbideak, eta abar) herriko ekosistemak asko hondatu dituzte. Garagartzako errekek sikatzen ari dira AHTarengatik, karramarroa galtzeko arrisku larrian dago, eta artadiaren azalera txikitu egin da. Autopistak ere basoak zatikatu ditu eta herriko paisaian eragina izan du. Gure herriko bioaniztasuna kaltetu egin du, eta horren aurrean hauek dira gure proposamenak:

Gaztelupe:Elene Maidagan

- “Mendiko bide garrantzitsuenak errekueratzea eta balioan jartzea. Horien balioa aditzera ematea eta herritarrei informazioa helaraztea”.
- “Udalak ahal duen neurrian autopista eta Abiadura Handiko Trenak sortutako ingurumen kalteak lehengoratzeko lan egitea: Garagartza auzoko errekatxoetako landaretza birsortzeko landaketak egitea eta autopistaren hondakindegietan landare inbaditzaileak kentzeko lan egitea eta inguruko paisaia konpontzeko lanak egitea”.

Arrasate Herri Eskola: Jurgi Irazuegi

Gu prest gaude ahal dugun neurrian laguntza emateko eta landaketa lanetan parte hartzeko. Labur bilduz esan dezakegu motordun garraio bideak behar baino gehiago erabiltzen baditugu, hainbat arazo sortzen direla, bai ingurumenean, bai gure osasunean, bai herriko bizi kalitatean. Autoa gehiegi erabiltzearen ondorio batzuk hauek dira: zarata, airea kutsatzea, istripu arriskua, auto pilaketak, mendiak apurtzea autoentzako errepideak egiteko, osasun arazoak, energia asko xahutzea. Gainera, motordun garraio bide horiek erabiltzea garesti irteten zaigu: erregaiak ordaindu behar ditugu, eta hori gure poltsikorako kaltegarria izateaz gain, Naturarako ere oso mingarria da.

Institutua: Amaia Arejolaleibar

. Herritarrek hainbat proposamen egin dute Udalak mugikortasunaren alde lan egiteko eta guk gehien errepikatu direnak ekarri ditugu hona:



Esp.-kodea: 2015SAPL0006

- “ Herrian berdegune gehiago egokitu edo sortzea gure kale eta plazetan”.
- “Zebra-bide gehiago ipintzea”.
- “Udala kotxe elektrikoak erabiltzen hastea”.
- “ Bizikletak aparkatzekoak jartzea herrian”.
- “Oinezkoentzat bide gehiago egitea”
- “Aramaioara joateko garraio publikoaren beharra aztertzea”.

Santa Teresa: Aner Iriarte

Guk ahal dugun neurrian gure aportazioa ere egiten dugu eta orokorrean gure mugikortasuna jasangarriagoa izaten saiatuko gara. Hemendik aurrera gure osasunerako hain onuragarria den garraioa, bizikleta, erabiliko dugu eta oinez ere joango gara. Eta nekatuta bagaude, garraio publikoa erabiliko dugu.

¡ESKERRIK ASKO!

KANDI FERNANDEZ (Udal Ingurugiro Eskolako zuzendaria): Aurten nobedade moduan ikasleek entzun ondoren daukagu prestatuta bideo bat irudiekin euren irudiekin zuek hobeto ikusteko zer egin duten eta zer dan eskatzen dutena.

(Horren ondoren, ikasleek landutako proposamenak jasotzen dituen ikus-entzunekoak aurkeztu da aretoan, 10 minutuko iraupenaz)

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Ikusten da egin duzuen lana oso interesantea mila esker egin duzuen proposamenengatik be bai, guztiak aztertu eta erantzungo ditugu. Orain berriz mahaian gaudenon txanda da eta proposamen bat edo azalpen bat nahi baldin baduzue eman zuen txanda da.

JOXE ETXEBARRIA (ARALAR): Arratsaldeon guztioi. Hamabi urte hauetan hamaika gai landu dituzue Arrasatek aurrera egin dezan jasangarritasunaren bidean eta landu den gai bakoitzean konklusioak atera dituzue, proposamen zehatzak egin eta konpromiso batzuk hartu ere bai. Ondo legoke guzti horien bilduma egitea eta administrazioari igortzetik aparte, zuetako bakoitzak jaostzea eta urteetan begiradatxo bat egitea. Eskerrik asko.

FRANCISCO GARCIA (PSE-EE): Arratsaldeon, Buenas Tardes. Bueno, nosotros sumarnos a las palabras del Alcalde, también a los consejos que os ha dado Joxe. Hemos visto que habeis puesto el acento en la movilidad y en el transporte publico. El transporte público es una de las cosas que este ayuntamiento ha debatido mucho, seguirá debatiendo y yo lo que os animo es a que sigais trabajando en pro del medio ambiente, del transporte publico y en pro de la ciudadanía para que



Esp.-kodea: 2015SAPL0006

tengamos unas medidas mas adecuadas y mas coherentes con lo que tenemos ahora. Gracias por vuestra aportación.

MARIA UBARRETXENA (EAJ-PNV): Arratsaldeon. Aratza, Iker Jana, Iñigo, Irati, Bi Aner, June, Maite, Ane, BI Manex, Iman, Nahikari, Saray, Jara, Danel, Jon, Saioa, Garazi, Elene, Jurgi eta Maider. Eskerrik asko hemen egin duzuen presentazio horregatik eta baita ere ikasle eta irakasle guztioi Arizmendi ikastola, Arrasate Herri eskola eta Instituari.

Jasangarritasunaren bidean gai honek izugarritzko garrantzia dauka eta bueno gure herria osasuntsuagoa, erosogoa eta jasangarriagoa izateko ingurumenaren lehentasuna erronka bat da. Gaur zuek proposamen askoekin etorri zarete etra guk hartuko dugu konpromisoa zuen eskaerak aurrera ateratzeko. Animo eta zorionak guztioi.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Oraintxe esan dituzuenak entzunda, iruditu zait zuek ere argi duzuela Arrasaten eredu iraunkorrago eta seguruagoa bultzatu behar dugula. Istripuak, estresa, kutsadura atmosferikoak, eta ibilgailu motordunen erabilera masiboak sortzen dituzten gaixotasun eta gainontzeko kalte guztiak ahalik eta gehien murriztu behar ditugu.

Horretarako, Udalean badugu mugikortasun plan bat eta plan horren lehentasuna da oinezkoei aukerak zabalduz joatea eta herri barruko bizikleta bide sarea osatzea.

Adibidez, badira jadanik bi urte Alde zaharra oinezko bihurtu genuenetik, eta esango nuke denok gaudela aldaketarekin gustura. Hortxe dago gakoa, zenbait ohitura aldatzean bizi-kalitatea hobetzeko, danok hobeto bizitzeko.

Udaletik zenbait neurri hartuz ohitura aldaketa horiek bultzatzen ari gara. Eta hortik datoz mugikortasunarekin lotuta eman ditudun beste zenbait pauso ere:

- Ospitale inguruko aparkamenduen arazoa ere arindu dugu, eta apiriletik aparkaleku gehiago ditugu ospitale atzealdean.
- Arrasaten autoa hartu barik mugitzeko iaz, hiri busaren hiru zerbitzu berri ere ezarri genituen.
- Gainera autoen zentzuzko erabilpena bultzatzeko TAO ere jarri dugu Uribarri inguruan eta erdialdeko zati batean.
- Eta zuen proposamenekin lotuta, beste kontu garrantzitsu bat esango dizuet: Arrasaten, orain lehentasuna dugu herri barruko bizikleta bide sarea osotzea. Jadanik garatuta dugu herria alderik alde zeharkatzen duen bide bat, eta herria zeharkatuko duen beste bide baten hainbat zati ere eginak daude.

Gainera, herriko leku ezberdinak lotzeko, lehen bai lehen beste bide batzuk egin gura ditudugu:



Esp.-kodea: 2015SAPL0006

- Aurten, 2015ean, Arrasate pasealekuan oinezkoiei eta bizikletei lehentasuna emateko plataforma bakarreko bidea egingo dugu.

- Muxibar/Arbolapetarako eiekuzio proiektua aurten ere egingo dugu, espaloia zabaldu oinezkoiei lehentasuna emateko.

- Eta, Etxaluze-Musakola bizikleta bidea 2016an eginda egongo da.

Badakizue Bizikletaren mahai bat sortu genuela, ezta?

Han elkartzen gara Udala, eta Arrasaten bizikletan ibiltzeko ohitura duten zenbait jende. Eta han erabaki genuen, adibidez, denen artean (proposamenak aintzat hartuz), nondik pasa behar zen Etxaluze-Musakola bidea.

Lehen esan duzue gurasoekin zuek konpromiso batzuk hartzeko prest zaudetela, adibidez eskolara oinez edo bizikletaz joango zaretela.

Ba esango dizuet beste kontu bat: gurasoak lanera oinez edo bizikletaz joatera bultzatzeko programa bat ere badugu martxan jarrita; aurreko urteko urrian jarri genuen martxan.

Zuek animatzen badituzue ziur nago geuk esanda baino lehenago animatuko direla!

Oraindik lan asko egin behar dugu eredu iraunkorragoa izan dezagun. Baina tira!

Ekarpen hauek guztiak entzunda aitortu behar dut, gaur oso pozik nagoela eta zuekin komentatzeko ideia ugari etorri zaizkidala burura. Baina uste dut hobe izango dela nik proposamen guztiak Udal departamentuetara eramatea, teknikariek eta politikoez aztertu ditzaten.

Konforme?

Denok hartu behar dugu konpromisoa eta elkarrekin lan egin behar dugu ganorazko ohiturak bultzatzeko.

Bide horretan zuek oso ondo ari zarete eta nik horrela jarraitzeko animatzen zaituztet.

Eskerrik asko, zorionak eta segi horrela!

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 17:40etan amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2015eko maiatzaren 7an

IDAZKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga

LEHENDAKARIA

Inazio Azkarragaurizar Larrea